



Ebazpena, azaroaren 7koa, Finantzetako zuzendariarena, maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 8., 10. eta 13. artikuluetan ezarritako irizpideak garatzen dituen, banakako aurreikuspen-plan bermatuek bete beharreko betekizunak ezarriz.

Ekonomia eta Ogasun Sailak du Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko eskumena, batez ere Finantza Zuzendaritzaren bitartez. Hain zuzen ere, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuak zuzendaritza horri esleitzen dio Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko araudia betetzen den kontrolatzea, gainbegiratzea eta ikuskatzea, bai eta Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen dokumentazio ekonomiko-finantzarioa eta kaudimena arautu, garatu, aztertu eta gainbegiratzea ere.

Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuak, 8. artikuluan, inbertsioaren emaitza bermatuko duten BGAEetarako baldintzak ezartzen ditu. Halaber, 13. artikulua kanpoko pertsona juridiko batek aseguratutako errentagarritasunen kasuak azaltzen ditu.

Ondorioz, aipatutako araudian aurreikusitako ondoreetarako, egokitza jo da, ebazpen honetan, aipatutako irizpideak garatzea, eskumen horiek dituzten eragileei eta EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei modu ofizialean helaraziko zaizkien argibide hauen bitartez:

Lehenengoa:

1.- 92/2007 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, inbertsioaren emaitza bermatuko duten BGAEek, aurreikuspen-plan bakoitzeko, beren gain hartutako betebeharrak nahikoa zuzkidura tekniko eratu beharko dute.

Era berean, aipatutako dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, inbertsioaren emaitza bermatuko duten BGAEek, beren zuzkidura teknikoak gauzatzeko baina aktibo gehiago izan behar dituzte beti, erreserba modura. Aktibo horiek edozein konpromisotik kanpo egongo dira eta kaudimen margen bezala balioko dute. Kaudimen margenaren zenbatekoa zuzkidura teknikoen gutxienez % 4 izango da.

Gainera, arau beraren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, barruko bermea duten plan horietako BGAEek ezin izango dute egin etekin bermatua iragartzeko publizitate-jarduerarik.

2.- 92/2007 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, data zehatz batean errentagarritasun jakin bat eskuratzeko bermea eskaintzen duten aurreikuspen-planak sustatzen dituzten BGAEek, edozein publizitate-bitarteko edo -euskarriren bitartez egingo dela horri buruzko publizitatea, BGAEz kanpoko bermatzaile batek eskaintako bermea eduki behar izango dute.

Ondorio horietarako, horrela ulertu behar dira ondoko kontzeptuak:

-Kanpoko bermea: BGAEz kanpoko pertsona juridiko batek estaltzea pertsona juridiko horrek bermatutako balioaren eta aurreikuspen-planaren bermearen iraungitze-datako kontu-unitatearen balioaren arteko diferentzia, bermatutako balioa baino txikiagoa bada.

-Bermatzailea: BGAEz kanpoko pertsona juridiko bat.

-Bermea antolatzea: Kanpoko berme hori aipatutako estaldura bermatzen duen Zuzenbidean onartutako edozein bitarteko juridikotan antolatuko da. Nolanahi ere, aipatutako bitartekoaren kopia eman beharko zaio bazkideari.

Aipatutako bitartekoak argi eta garbi ezarri beharko du bermea kanpoko delatza eta erakunde bermatzaileari bakarrik eska dakiokela, obligazioa duela zuzenean eta bakarrik bazkide arrunt edo onuradunari ordaintzeko, aurreikuspen-planeko kide izatetik eratorritako eskubide eta betebeharretatik kanpo dagoela eta horiengandik independentea dela.

-Bermea kobratzeko modua: Onartutako konpromisoaren ondorioz erakunde bermatzaileak ordaindu beharreko zenbatekoak bazkide edo onuradunak adierazitako kontuan ordainduko dira. Ordaindutako zenbatekoari dagokion zerga-trataera aplikatu ostean, bazkideak automatikoki eman beharko du bazkideak BGAEan eta bazkideak ezarritako planean jasotako zenbatekoa.

3.- Planeko prestazioen araudiak eduki hau azalduko du:

Araudiak ezin izango du prestazioen kobratzea mugatu plan horietan estalitako kontingentzietakoren bat gertatzen denean: erretiroa, baliaezintasuna, heriotza, gaixotasun larria eta luzaroko langabezia.

Araudi horren barruan, baita ere, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeek jarduera jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuko 11. artikuluan inbertsioetarako ezarritako baldintzak aipatu beharko dira.

4.- Aurreikuspen-planak duen bermearen mugaeguna bete baino bi hilabeteko aurrerapenaz, gutxienez, Erakundeak bazkideari jakinaraziko dio bermea iraungiko dela, bazkideak adieraz dezan bere eskubide ekonomikoak eskualdatzeko aukeratu duen B.G.A.E. horren beste plan berria. Bazkideak erakundearen jakinarazpena jasotzen duenetik eta bermea iraungi baino 15 egun lehenagora arte adierazi ahal izango du zein planera nahi dituen eskualdatu bere eskubide ekonomikoak.

Nolanahi ere, Plan Bermatuaren Araudiak bermatu gabeko plan bat aurreikusi beharko du BGAEko planen artean, eta, bazkideak ez badu beste helburu-planik adierazi aipatutako epean, bertara eramango dira eskubide ekonomikoak bermea iraungitzean. Era berean, Planaren Araudiak adieraziko du erakundeak lehenetsita izendatutako plana existituko ez balitz bermea iraungitzen denean, antzeko ezaugarri eta inbertsio-estrategiak dituen beste batera eskualdatuko dela. Gehienez bost eguneko epea egongo da eskubide ekonomikoak eskualdatzeko, bermea iraungitzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Hau gertatu eta gero Plana likidatu behar da.

Bigarrena:

Zerga-araudiari lotzea: Bermea aplikatzearen ondorioz bazkideari ordaindutako zenbatekoak ez dira BGAEen prestaziotzat hartuko. Beraz, izango duten zerga-trataera ez da BGAEari dagokiona, eta independentea izango da. Bada, bermea iraungitzen den egunean indarrean dagoen zerga-araudia aplikatu beharko zaizkie.

Hirugarrena:

Jakinarazpenen ondorioetarako, ebazpen hau eta bertako argibideak Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantza Zuzendaritzaren web gunean ipiniko dira eta, era berean, aurreikuspen banan-banako planak dituzten EAeko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztiei jakinaraziko zaizkie, posta elektronikoaren bitartez.

Laugarrena:

Ebazpena hau 2011ko azaroaren 15ean sartuko da indarrean. Egun horretatik aurrera Gobernu Batzarrean onetsitako planek instrukzio honetan ezarritakoa bete beharko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 7a

Izpta.: Miguel Bengoechea Romero

FINANTZETAKO ZUZENDARIA